

## JARDUNALDIA

### **GIZONAK, MASKULINITATEAK ETA BOTEREA ERAGITEKO FORMA BERRIAK**

#### INGURUABARRAK

Boterearen berdintasun eza da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun ezaren emaitza nagusia, eta gizartean gizonak bete behar omen duten paperarekin lotu-lotua dago gaur egun boterea. Hori dela-eta, rol hori bete beharra eragiten duten mandatuei nahiz espektatiba sozialei erronka jotzea ezinbestekoa dugu orain.

Berdintasuna lortzeko bidean, bizitzako esfera batzuetan sortzen diren benetako botere-harremanak aztertuko ditugu jardunaldi honetan: nola ari diren eboluzionatzen eta zer norabidetan; betiere, gure gizartean gizona izateko indarrean dagoen eredu nagusia, hau da, maskulinitate hegemonikoa, kontuan hartuta.

Jardunaldi hauetan euskal gizarteko hainbat arlotako jendea nahi dugu bildu, batez ere gizonak, gizarte apurka aldatu eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ekarriko duten estrategiak proposatzeko eta horiei buruz gogoetan aritzeko; agerian jarri nahi dugu zer-nolako harremana daukaten gizonak gaur egungo boterea eragiteko moduekin eta gaur egungo maskulinitatearekin.

Generoaren pribilegioak ezabatzeko politika publikoak ezartzerakoan zer helburu eta estrategia erabili behar diren aztertuko dugu, eta zer den lagungarria erabaki politiko, sozial nahiz ekonomikoak hartzen diren eremuetara gizon nahiz emakumeak berdinduz iristeko.

Bertan bildutako jendearen parte-hartzeak ekarritako emaitzak nahi genituzke bildu jardunaldi honetan, planteamendu dinamiko eta interaktiboa aplikatuz. Bitan banatuko dugu jardunaldia: alde batetik, ponentzia gidaria, **“Gizonak, maskulinitateak eta boterea eragiteko modu berriak”**, landu nahi dugun gaiari oinarri teorikoa emango diona, eta, bestetik, taldekako lana, iritziak landu eta denen artean azaltzeko.

Ponentzia gidaria Gary Barker-ek aurkeztuko du, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko gizonen parte-hartzean eta emakumeen kontrako indarkeria ezabatzen aditua denez. Promundo-ko fundatzailea eta nazioarteko zuzendaria da, eta MenCare kanpainaren fundatzailea beste batzuekin batera (indarkeriarik gabeko berdintasunezko mundua sortzeko helburuz, gizonen parte-hartzea eragiteko mundu mailako programarena).

Lan-talde bakoitzean arlo jakin bateko adituak izango dira saioa koordinatzeko: dinamika espezifikoaren bitartez gidatuko dute eztabaida; hartara, taldekideek beren iritziak eta proposamenak lasai azalduko dituzten denen aurrean. Hiru talde antolatuko ditugu:

- a) **Ekonomia:** Tomás Arrieta izango da koordinatzailea (Laneko Harremanen Kontseiluko lehendakaria). Besteak beste, generoaren estereotipoak enpresetan nahiz lan-arloan nola gauzatzen diren aztertuko dute talde honetan: horren ondorioak zein diren, erresistentzia handieneko puntuak zein diren, eta kudeaketa- nahiz lidergo-eredu berriak sartzeko aukerak non diren.
- b) **Politika:** Ibon Uribe izango da koordinatzailea (Galdakaoko alkatea da, eta Berdintasuneko Arduraduna EUDELen). Politika egiteko garaian indarrean dagoen maskulinitateari lotutako estereotipoek zer-nolako eragina daukaten aztertuko du talde honek: nola, zergatik eta non aldatzen ari diren boterea eragiteko egiturak eta formak, eta non ez; alegia, nora jo behar dugun politikan eta beste arlo batzuetan transformazio igualitarioa lortzeko.
- c) **Kultura:** Patxi Perez aktorea izango da koordinatzailea. Jakintzaren ekoizpenak, jakintzaren kanalak eta dibulgazio-moduak zenbateraino daude ikuspegi androzentrikoak markatuta? Galdera horri erantzuna ematen saiatuko da talde hau, ikusteko zer-nolako eragina daukan maskulinitatearen taxu tradizionalak fenomeno hori iraunarazten, non eta zergatik ari diren gertatzen aldaketak eta abar.